| | |
|---|---|
| **GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2017KO UZTAILAREN 11N LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 11 DE JULIO DE 2017.** |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| | |
|---|---|
| **BATZARKIDEAK** | **V O C A L E S** |

Joseba Arregui Martínez Jn.
Álvaro González Pérez Jn.
Ignacio Uriarte Gorostiaga Jn.
Jose Luis Landa Arteche Jn.

| | |
|---|---|
| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko uztailaren hamaikan, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a once de julio de dos mil diecisiete, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

Alkateak, legeak eskatzen duen kide-kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el

dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**304.- 2017KO UZTAILAREN 4AN EGINDAKO OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEA.**

**304.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 4 DE JULIO DE 2017.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2017ko uztailaren 4ko bilerakoa, hain zuzen.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 4 de julio de 2017.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD Y EUSKERA**

**305.- GETXOKO UDALEKO ETA KULTURA ETXEA TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOKO POSTA-ZERBITZUAREN KONTRATUA ALDATUTA ONESTEA.**

**305.- APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DEL CONTRATO DEL SERVICIO POSTAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y DEL ORGANISMO AUTÓNOMO AULA DE CULTURA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA.- Getxoko Udalak onartu egingo du “SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A.” sozietateak, A-83052407 IFK, proposatutako deskontu-portzentajearen gehikuntza, ehuneko 15etik 42,78ra, administrazio jakinarazpenak emateko kudeaketaren tarifa ofizialerako, GETXOKO UDALAREN ETA KULTUR ETXEA ERAKUNDE AUTONOMOAREN POSTA ZERBITZUAREN (2016-2019) kontraturako eskaintza ekonomikoan, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izateko moduan.

PRIMERO.- Aceptar por parte del Ayuntamiento de Getxo el incremento del porcentaje de descuento del 15 al 42,78% propuesto por la “SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A.”, con C.I.F. A-83052407, para la tarifa oficial de la gestión de entrega de las notificaciones administrativas en su oferta económica para el contrato del SERVICIO POSTAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y DEL ORGANISMO AUTÓNOMO AULA DE CULTURA (2016-2019), con efectos 1 de enero de 2017.

BIGARRENA.- GETXOKO

SEGUNDO.- Autorizar el inicio del

UDALAREN ETA KULTUR ETXEA ERAKUNDE AUTONOMOAREN POSTA ZERBITZUAREN (2016-2019) kontratuko espedientearen hasiera baimenduko da eta kontratua aldatzea onetsiko da. Kontratu hori "SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A."ri, A-83052407 IFK, adjudikatu zitzaion, Getxoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 471. Erabakiaren bidez, 2015-12-15eko bilkura arruntean emana.

expediente y aprobar la modificación del contrato del SERVICIO POSTAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y DEL ORGANISMO AUTÓNOMO AULA DE CULTURA (2016-2019) adjudicado a la "SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A.", con C.I.F. A-83052407, por Acuerdo nº 471 de la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Getxo, en sesión ordinaria celebrada el 15/12/2015.

Kontratuaren aldaketaren ondorioz, kontratua betetzeko hasiera batean aurreikusi den urteko aurrekontua 19.999 eurotan gehituko da (% 21eko BEZa barne), urteko 200.000 euroen gainean (% 21eko BEZa barne). Beraz, kontratu honen urteko aurrekontua 219.999 euro izango da urtean, % 21eko BEZa barne.

La modificación contractual consiste en aumentar el presupuesto anual inicialmente previsto para la ejecución del contrato en 19.999 euros (21% de I.V.A. incluido) a los 200.000 euros/año (21% de I.V.A. incluido), lo que dejaría el presupuesto anual para este contrato en 219.999 euros/año, 21% de I.V.A. incluido.

Aldaketa horren arrazoia da indarrean dagoen kontratuaren aurrekontuaren zenbatekoa kalkulatzerakoan aurreikuspen okerrak egin zirela. Horregatik, urteko gehieneko aurrekontua handitu behar da, bertan dauden beharrizanei erantzuteko, ez baita kontuan izan Udaltzaingo Sailak, izapidetzen diren zehapen prozeduretan, administrazio jakinarazpenen gehikuntza.

Dicha modificación es consecuencia del error en las previsiones cuando se realizaron los cálculos para el importe del presupuesto del contrato en vigor que hace necesario aumentar el presupuesto máximo anual para atender las necesidades previstas en el mismo, al no haberse tenido en cuenta el incremento de las notificaciones administrativas efectuado por el Departamento de la Policía Local en los procedimientos sancionadores que tramitan.

HIRUGARRENA.- GETXOKO UDALAREN POSTA ZERBITZUAREN (2016-2019) kontratuaren aldaketari aurre egiteko behar den gastua baimenduko da, gehienez ere 39.998 eurotan (BEZ, % 21, barne).

TERCERO.- Autorizar el gasto necesario para hacer frente a la modificación del contrato del SERVICIO POSTAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO (2016-2019) por un importe máximo de 39.998 euros, 21% de I.V.A. incluido.

LAUGARRENA.- Adjudikaziodunak berme osagarri bat jarri beharko du Udal Diruzaintzan, 1.652,82 eurokoa, 15

CUARTO.- El adjudicatario deberá constituir en la Tesorería Municipal, en el plazo de 15 días, contado desde la

eguneko epean, erabaki hau jakinarazten zaionetik zenbatuta.

notifiación del presente acuerdo, una garantía complementaria por importe de 1.652,82 euros.

BOSGARRENA.- Proposatutako aldaketa administrazio dokumentu batean formalizatuko da, 15 egun balioduneko epean esleipendunari ebazpen hau jakinarazten zaionetik aurrera zenbatuta.

QUINTO.- La modificación propuesta se formalizará en documento administrativo, dentro del plazo de los 15 días hábiles a contar desde la notificación a la adjudicataria de la presente resolución.

**306.- LA TERRAZA DERITZAN UDAL ERAIKINA USTIATZEKO ESLEITUTAKO KONTRATUA LUZATZEA.**

**306.- PRÓRROGA DEL CONTRATO PARA LA EXPLOTACIÓN DEL EDIFICIO MUNICIPAL DENOMINADO LA TERRAZA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: 2017-07-15etik 2018-07-14ra luzatuko da (bigarren luzapena, azkena) "SARENE XXI, S.L.-PUNTUAN KONSULTING, S.L, UNIÓN TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982" deritzon EABarekin, laburrean "U.T.E. explotación La Terraza", U95772489 IFK, "LA TERRAZA" IZENEKO UDAL ERAIKINAREN USTIAPENERAKO sinatutako kontratuaren indarraldia, urteko kanon honen truke: 183.231,33.-euro gehi 38.478,58 euro (BEZaren % 21a).

PRIMERO: Prorrogar desde el 15/07/2017 al 14/07/2018 (segunda y última prórroga), la vigencia del contrato suscrito con la UTE denominada "SARENE XXI, S.L.-PUNTUAN KONSULTING, S.L, UNIÓN TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982", en anagrama "U.T.E. explotación La Terraza", con C.I.F. U95772489 para la EXPLOTACIÓN DEL EDIFICIO MUNICIPAL DENOMINADO "LA TERRAZA" por un canon anual de 183.231,33.-€ mas 38.478,58 euros correspondientes al 21% de I.V.A.

Urteko kanona, 183.967,2.- eurokoa, gehi % 21eko BEZa, adjudikaziodun enpresak ordaindu du 2015eko abuztutik 2016ko uztailera arteko denboraldian, EAEko 2014ko uztailetik 2015eko uztailera arteko urte arteko KPIa eguneratu ondoren, % 0,2an.

El Canon Anual por importe de 183.967,2.-€, más el IVA del 21% ha sido abonado por la empresa adjudicataria durante el periodo de tiempo comprendido entre Agosto del 2015 y Julio del 2016, tras su actualización en función del IPC interanual de Julio del 2014 a Julio del 2015 de la CAPV, que fue del 0,2%

EAEn, 2015eko uztailetik 2016ko uztailera arte, urte arteko KPIaren aldakuntza -% 0,4koa da. Beraz, adjudikaziodunak 2016ko abuztutik 2017ko uztailera ordaindu behar duen urteko kanona 183.231,33.- eurokoa da, gehi 38.478,58.- euro, % 21eko BEZarenak.

El IPC interanual de Julio de 2015 a Julio de 2016 de la CAPV es del -0,4% por lo que el canon anual a abonar por la empresa adjudicataria durante el período de tiempo comprendido entre Agosto de 2016 y Julio del 2017 es de 183.231,33.-€ mas 38.478,58.-euros correspondientes al 21% de I.V.A.

BIGARRENA: Ez da behar kreditu egoki eta nahikorik kontratu hori luzatzetik eratortzen diren gastuei aurre egiteko, espediente honek ez baitakar gasturik udal kutxentzat.

SEGUNDO: No se requiere crédito adecuado y suficiente para hacer frente a los gastos derivados de prorrogar el citado contrato dado que el presente expediente no conlleva gasto para las arcas municipales.

HIRUGARRENA: Erabaki hau Getxoko Udaleko Zerga Kudeaketari jakinaraziko zaio.

TERCERO: Notificar el presente acuerdo a Gestión Tributaria del Ayuntamiento de Getxo.

**307.- GETXO AKTIBATU PROIEKTUA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZUAREN 1. LOTEA ESLEITZEA: KIROL EKITALDIAK MERKATARITZAKO ARDATZETAN ANTOLATZEKO JARDUERAK.**

**307.- ADJUDICACIÓN DEL LOTE 1 DE LOS SERVICIOS DE GESTIÓN Y ORGANIZACIÓN DEL PROYECTO GETXOAKTIBATU (ACTIVIDADES RELACIONADAS CON LA ORGANIZACIÓN DE EVENTOS DEPORTIVOS EN EJES COMERCIALES).**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA.- GETXOAKTIBATU 2014 PROIEKTUA KUDEATZEKO ETA ANTOLATZEKO ZERBITZUAK KULTURBIDE GESTION SOCIOCULTURAL S.L. enpresari (IFK: B01433259) adjudikatuko zaizkio, hain zuzen ere 1. lotea, MERKATARITZA ARDATZETAN KIROL EKITALDIAK ANTOLATZEKO JARDUERAK izenekoa, 12.018 eurotan gehi % 21eko BEZari dagozkion 2.523,78 eurotan.

PRIMERO.- Adjudicar a la empresa KULTURBIDE GESTIÓN SOCIOCULTURAL, S.L., con CIF B01433259, los SERVICIOS DE GESTIÓN Y ORGANIZACIÓN DEL PROYECTO GETXOAKTIBATU 2014, Lote 1: ACTIVIDADES RELACIONADAS CON LA ORGANIZACIÓN DE EVENTOS DEPORTIVOS EN EJES COMERCIALES, por importe de 12.018€, más 2.523,78€ correspondientes al 21% de IVA.

Kontratua URTEBETEKO (1) epean egikarituko da, sinatzen denetik zenbatzen hasita.

Kontratua BESTE URTEBETEZ (1) luzatu ahalko da.

Jardueren prestaketa, gauzatzea eta ixtea, bidezkoa bada, urte bakoitzeko martxoaren amaieraren eta azaroaren artean egingo dira, Baldintza teknikoen pleguaren 3.4 atalak ("Iraupena eta gauzatzeko egutegia") dioenez.

BIGARRENA.- Adjudikaziodunak kontratazio-zerbitzuko bulegoetara (Foruen kalea, 8) joan beharko du kontratua administrazioko agirian formalizatzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bat eginaren 156.1. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz; hori egiteko, hamabost laneguneko epea izango du, gehienez ere, erabaki hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau prozedura honetan parte hartu duen enpresa lizitatzaileari jakinaraziko zaio (I. LOTEA), eta Getxolaneko teknikariak AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI buruz 2017-05-22an egin zuen txosten teknikoaren kopia bat bidaliko zaio.

**308.- KALE-ARGIETAKO INSTALAZIOAK ARTATZEKO LANPA HORNIDURAKO ESPARRU-AKORDIOAREN ARABERAKO KONTRATUA ESLEITZEA.**

El plazo de ejecución del contrato será de UN (1) AÑO, a contar desde la fecha de la firma del mismo.

El contrato será prorrogable por OTRO AÑO MÁS (1).

La preparación de las actividades, la ejecución de las mismas y el cierre, en su caso, se desarrollará entre finales de marzo y noviembre de cada año, tal y como señala el apartado 3.4, denominado "Duración y calendario de ejecución", del Pliego de Condiciones Técnicas.

SEGUNDO.- El adjudicatario, de conformidad con lo indicado en el artículo 156.1 del TRLCSP, deberá comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, para formalizar el contrato en documento administrativo, en un plazo máximo de quince días hábiles desde la recepción de la notificación del presente acuerdo.

TERCERO.- Notificar la presente resolución a la empresa licitadora participante en el presente procedimiento (LOTE I), así como dar traslado a la misma de una copia del informe técnico de fecha 22/05/2017, emitido por el Técnica de Getxolan sobre los CRITERIOS NO EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA.

**308.- ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DERIVADO DEL ACUERDO MARCO PARA EL SUMINISTRO DE LÁMPARAS DE ALUMBRADO PÚBLICO.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: "ELECTRO VIZCAYA, S.A." enpresari adjudikatzea (IFK: A48115000) ARGIZTAPEN PUBLIKOKO LANPARAK HORNITZEKO ESPARRU-AKORDIOTIK sortutako kontratua, esparru-akordiorako aurreikusi zen zenbateko osoan, hots, 65.108,26 eurotan, BEZaren % 21 barne (32.554,13 euro urtean).

Konturatua betetzeko epea bi urtekoa izango da, hura formalizatzen denetik zenbatzen hasita, eta urtebeteko bi luzapen izan ahalko ditu jarraian.

BIGARRENA: Kontratu hori adjudikatzearen ondorioz sortutako betebeharrei aurre egiteko behar den gastua baimentzea, 65.108,26 euroan.

HIRUGARRENA: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 156.1. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, adjudikazioduna Kontratazio Zerbitzuko bulegoetan agertu beharko da (Foru kalea, 8) kontratua administrazio-agirian formalizatzeko, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hamabost egun balioduneko epean, gehienez ere. Horretarako, hura prestatuko da eta behar bezala jakinaraziko zaio enpresari.

**<u>309.- PUNTA BEGOÑAKO HEGOALDEKO GALERIAREN SARBIDEKO OBREN ADJUDIKAZIOA.</u>**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Adjudicar a la empresa "ELECTRO VIZCAYA, S.A.", con C.I.F. A48115000, el contrato derivado del ACUERDO MARCO PARA EL SUMINISTRO DE LÁMPARAS DE ALUMBRADO PÚBLICO, por el presupuesto total previsto para dicho Acuerdo Marco, es decir, 65.108,26 euros, I.V.A. 21% incluido (a razón de 32.554,13 euros/año).

El plazo de ejecución de dicho contrato será de dos años, a partir de la formalización del mismo, siendo prorrogable por dos períodos sucesivos de un año de duración cada uno de ellos.

SEGUNDO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas del contrato adjudicado, por importe de 65.108,26 euros.

TERCERO: El adjudicatario, de conformidad con lo indicado en el artículo 156.1 del TRLCSP, deberá comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, para formalizar el contrato en documento administrativo, en un plazo máximo de quince días hábiles desde la recepción de la notificación del presente acuerdo. A tales efectos se preparará aquel y se avisará oportunamente a la empresa.

**<u>309.- ADJUDICACIÓN DE LAS OBRAS DE ACCESO A LA GALERÍA SUR DE PUNTA BEGOÑA.</u>**

Kontratazio, Informazio Sistema eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki proposamen hau onestea erabaki zen:

EGITATEZKO AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzarrak 2017-04-25eko bilkuran eman zuen 167. Erabakiaren bidez, PUNTA BEGOÑAKO HEGOALDEKO GALERIAKO SARBIDEKO OBRAREN proiektua onetsi zen.

Honako hauek dira kontratuaren ezaugarri nagusiak:

- Obraren aurrekontua, BEZa barne, 166.031,00 euro da, obra onesteko aurkeztu den proiektu teknikoaren arabera.
- Kontratua burutzeko epea 4 hilabetekoa da, zuinketa egiaztatzeko akta sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.
- Kontratuaren balioa 137.215,70 euro da, gutxi gorabehera.

Erabaki hartan, era berean, administrazio kontratazioa eraendu behar duten administrazio klausula berezi eta teknikoen pleguak onetsi ziren, eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatua hasi zen, adierazitako obrak adjudikatzeko.

BIGARRENA.- 2017-05-08an hainbat enpresari jakinarazi zitzaion aipatutako espedientea hasiko zela, eta haien eskaintzak egiteko gonbidapena egin zitzaien; horretarako, 15 egun naturaleko epea eman zitzaien, gonbidapena jaso zen egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskaintzak aurkezteko epea amaituta, enpresa hauek eskaintza forma eta epe egokietan aurkeztu zuten:

- CONSTRUCCIONES LAUMORA S.L.
- E3D 2008 S.L.

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Por Acuerdo nº 167 adoptado por la Junta de Gobierno Local en su sesión de fecha 25/04/2017 se aprobó el proyecto correspondiente a la OBRA DEL ACCESO A LA GALERÍA SUR DE PUNTA BEGOÑA.

Las características principales del contrato son las siguientes:

- El presupuesto de la obra, I.V.A. incluido, asciende a 166.031,00 euros, de acuerdo con el proyecto técnico que presenta para su aprobación.
- El plazo de ejecución del contrato será de 4 meses, a contar desde la suscripción del Acta de Comprobación del Replanteo.
- El valor estimado del contrato asciende a 137.215,70 euros.

En dicho acuerdo se aprobaron igualmente los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa, iniciándose el Procedimiento Negociado, sin Publicidad, para la adjudicación de las referidas obras.

SEGUNDO.- Con fecha 08/05/2017 se comunica a diversas empresas la incoación del expediente de referencia, invitándoles a presentar ofertas, concediéndoles para ello un plazo de 15 días naturales a contar desde el recibo de la invitación.

Finalizado el plazo de presentación de ofertas, presentan oferta en forma y plazo, las siguientes empresas:

- CONSTRUCCIONES LAUMORA S.L.
- E3D 2008 S.L.

- CONSTRUCCIONES OLABARRI S.L.
- CONSTRUCCIONES ARTELU Y HARGIN DE PIEDRA LABRADA S.A.L.

- CONSTRUCCIONES OLABARRI S.L.
- CONSTRUCCIONES ARTELU Y HARGIN DE PIEDRA LABRADA S.A.L.

HIRUGARRENA.- 2017-05-30ean dokumentazio orokorra zuen gutun-azala ireki zen jendaurrean. Construcciones Olabarri S.L.k ez du zehaztu dagokion lan sektoreko hitzarmen kolektiboa. Beraz, 2017-05-30ean jakinarazi zitzaien, gehienez ere 3 egun baliodunek epean huts hori ongitu zezaten.

Eskatutako dokumentazioa ongituta, bigarren gutun-azala ireki zen 2017-06-02an. Bertan, negoziatu beharreko alderdiak daude, hau da, proposamen ekonomikoa. Honako emaitza honekin:

TERCERO.- El día 30/05/2017 se realiza, en acto público, la apertura del sobre conteniendo la documentación general. En vista de que la empresa Construcciones Olabarri S.L. no especifica el Convenio colectivo del sector laboral correspondiente, se les comunica en fecha 30/05/2017, para que en un plazo no superior a 3 días hábiles, subsanen la citada omisión.
Subsanada la documentación requerida, se procede a la apertura del sobre segundo en fecha 02/06/2017, que contienen los aspectos sujetos a negociación, a saber, la proposición económica. Con el siguiente resultado:

| **ENPRESA**<br><br>**EMPRESA** | **PROPOSAMEN EKONOMIKOA**<br>**(Lizitazioko oinarrizko aurrekontua: 137.215,70 € - BEZa kanpoan)**<br><br>**PROPOSICIÓN ECONÓMICA**<br>**(Presupuesto Base de licitación 137.215,70 € - IVA no incluido)** |
|---|---|
| **1.- E3D 2008, S.L.** | **108.222,02** |
| **2.- CONSTRUCCIONES OLABARRI, S.L.** | **128.104,58** |
| **3.- CONSTRUCCIONES LAUMORA S.L.** | **110.067,98** |
| **4.- CONSTRUCCIONES ARTELU Y HARGIN DE PIEDRA LABRADA S.A.L.** | **137.096,70** |

LAUGARRENA.- Klausula ekonomiko eta administratiboen pleguaren 22. idatz-zatian ezarritako negoziazio izapidearen jarraipen gisa, kontraeskaintzak aurkezteko irekitzeko epea jakinarazi da (2 egun baliodun, komunikazioa jakinarazi ondoko egunetik aurrera zenbatuta). Emandako epea amaituta, enpresa hauek

CUARTO.- Como continuación del trámite de negociación previsto en el apartado 22 del pliego de cláusulas económico-administrativas, se comunica el plazo de apertura para presentación de contraofertas (2 días hábiles a contar desde el siguiente al recibo de la comunicación). Finalizado el plazo otorgado, presentan

kontraeskaintza aurkeztu dute:

- CONSTRUCCIONES LAUMORA S.L.
- E3D 2008 S.L.
- CONSTRUCCIONES ARTELU Y HARGIN DE PIEDRA LABRADA S.A.L.

contraoferta las siguientes empresas:

- CONSTRUCCIONES LAUMORA S.L.
- E3D 2008 S.L.
- CONSTRUCCIONES ARTELU Y HARGIN DE PIEDRA LABRADA S.A.L.

BOSGARRENA.- Aurrekoa ikusita, 2017-06-09an hirugarren gutun-azala ireki zen, "negoziazioaren mende ez dauden irizpideak eta automatikoki ebaluatu ezin direnak" izenekoa, emaitza honekin:

QUINTO.- Visto lo anterior, en fecha 09/06/2017 se procede a la apertura del sobre tercero, ¨ criterios no sujetos a negociación y no evaluables automáticamente ¨, con el siguiente resultado:

| ENPRESA<br>EMPRESA | AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA<br>DOCUMENTACION PRESENTADA |
|---|---|
| **E3D 2008 S.L.** | ESKAINTZA TEKNIKOA<br>OFERTA TÉCNICA |
| **CONSTRUCCIONES OLABARRI S.L.** | ESKAINTZA TEKNIKOA<br>OFERTA TÉCNICA |
| **CONSTRUCCIONES LAUMORA S.L.** | ESKAINTZA TEKNIKOA<br>OFERTA TÉCNICA |
| **CONSTRUCCIONES ARTELU Y HARGIN DE PIEDRA LABRADA, S.A.L.** | ESKAINTZA TEKNIKOA<br>OFERTA TÉCNICA |

Jarraian, eta lizitazioa eraentzen duten pleguekin bat etorriz, aurkeztutako dokumentazioa foliotan banatu eta zenbakitu da eta aurkeztutako eskaintzak udal arkitektoari igorri zaizkio, dagokion balorazioa egin dezan.

Seguidamente, y de conformidad con los Pliegos que rigen la licitación, se procede a foliar y numerar la documentación presentada y se remiten las ofertas presentadas al Arquitecto municipal, para que sea realizada la valoración correspondiente.

SEIGARRENA.- 2017-06-13an, udal arkitektoak txosten teknikoa egin zuen, balorazio horretan eskaintza ekonomikoa kontuan izan gabe eta emaitza honekin:

SEXTO.- Con fecha 13/06/2017, el Arquitecto municipal, emite Informe Técnico, sin tener en cuenta en dicha valoración la oferta económica, con el siguiente resultado:

| Kontzeptua<br><br>Concepto | Geh. punt.<br><br>Punt. | LIZITATZAILEEK ESKURATUTAKO PUNTUAZIOAK<br><br>PUNTUACIONES OBTENIDAS POR LOS LICITADORES |
|---|---|---|

| | Max. | Artelu | Laumora | Olabarri | E3D |
|---|---|---|---|---|---|
| **Obra egiteko modua Forma de realizar la obra** | **39** | **35** | **25** | **20** | **35** |
| **Erabilitako bitartekoak Medios empleados** | **5** | **3** | **5** | **0** | **3** |
| **Egiteko irizpideak Criterios de ejecución** | **3** | **1** | **3** | **1** | **2** |
| **Ingurumen balioak Valores Ambientales** | **2** | **1,50** | **1** | **2** | **1** |
| **GUZTIRA TOTAL** | **49** | **40,50** | **34,00** | **23,00** | **41,00** |

ZAZPIGARRENA.- Aurreikusitako epea amaituta, KONTRAESKAINTZAK aurkeztu dituzte CONSTRUCCIONES LAUMORA S.L., E3D 2008 S.L. eta CONSTRUCCIONES ARTELU Y HARGIN DE PIEDRA LABRADA S.A.L. enpresek. Beraz, aurkeztutako gutun-azalak ireki dira. Hau izan da emaitza:

SÉPTIMO.- Finalizado el plazo previsto, han sido presentadas CONTRAOFERTAS por las mercantiles CONSTRUCCIONES LAUMORA S.L., E3D 2008 S.L. y CONSTRUCCIONES ARTELU Y HARGIN DE PIEDRA LABRADA S.A.L. por lo que se procede a la apertura de los sobres presentados que arroja el siguiente resultado:

| **ENPRESA**<br><br>**EMPRESA** | **KONTRAESKAINTZA**<br>**(Lizitazio oinarria: 137.215,70+BEZa)**<br><br>**CONTRAOFERTA**<br>**(Tipo Base de licitación 137.215,70+ IVA)** |
|---|---|
| **1.- CONSTRUCCIONES ARTELU Y HARGIN S.A.L.** | 105.568,03 |
| **2.- CONSTRUCCIONES LAUMORA S.L.** | 107.321,22 |
| **3.- E3D 2008 S.L.** | 106.989,00 |

ZORTZIGARRENA.- CONSTRUCCIONES OLABARRI S.L.k ez du KONTRAESKAINTZARIK aurkeztu. Beraz, eskaintza ekonomikoak honela geratuko dira:

OCTAVO.- No han sido presentada CONTRAOFERTA por CONSTRUCCIONES OLABARRI S.L., por lo que las ofertas económicas quedan como sigue:

| **ENPRESA**<br><br>**EMPRESA** | **BEHIN BETIKO PROPOSAMEN EKONOMIKOAK**<br><br>**PROPOSICIONES ECONÓMICAS DEFINITIVAS** |
|---|---|
| **1.- E3D 2008 S.L.** | 106.989,00 |

| | |
|---|---|
| **2.- CONTRUCCIONES OLABARRI S.L.** | 128.104,58 |
| **3.- CONSTRUCCIONES LAUMORA S.L.** | 107.321,22 |
| **4.- CONSTRUCCIONES ARTELU Y HARGIN S.A.L.** | 105.568,03 |

BEDERATZIGARRENA.- Aurrekoa ikusita, lortutako azken puntuazioak honako hauek dira:

NOVENO.- A la vista de lo anterior, las puntuaciones finales que se obtienen son las siguientes:

| **ENPRESA LIZITATZAILEAK**<br><br>**EMPRESAS LICITADORAS** | **PUNTUAZIOAK**<br><br>**PUNTUACIONES** | | **GUZTIRA**<br><br>**TOTAL** |
|---|---|---|---|
| | **Modu ez automatikoan ebaluatu ahal diren irizpideak**<br><br>**Criterios evaluables de forma no automática** | **Automatikoki ebaluatu ahal diren irizpideak (proposamen ekonomikoa)**<br><br>**Criterios evaluables de forma automática (proposición económica)** | |
| **1.- E3D 2008 S.L.** | 41 | **50,323** | **91,323** puntos |
| **2.- CONTRUCCIONES OLABARRI S.L.** | 23 | **42,028** | **65,028** puntos |
| **3.- CONSTRUCCIONES LAUMORA S.L.** | 34 | **50,167** | **84,167** puntos |
| **4.- CONSTRUCCIONES ARTELU Y HARGIN S.A.L.** | 40,50 | 51 | **91,500** puntos |

HAMARGARRENA.- 2017-06-27an, CONSTRUCCIONES ARTELU Y HARGIN de P.L., S.A.L.i agindeia egin zitzaion, SPKLTBEaren 146.4 eta 151 artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, udal diruzaintzan behin betiko bermea eratzeko, 5.278,40 eurotan.

DÉCIMO.- En fecha 27/06/2017 se requiere a CONSTRUCCIONES ARTELU Y HARGIN de P.L., S.A.L. a los efectos de lo dispuesto en los artículos 146.4 y 151 TRLCSP, para constituir garantía defenitiva en tesorería municipal, por importe de 5.278,40 euros.

HAMAIKAGARRENA.- Adjudikaziodunak laneko segurtasun eta osasun plana egin behar du, obren proiektuari erantsi zaion Segurtasun eta Osasunari buruzko Azterlana aplikatuz. Plan hori segurtasun- eta

ÚNDECIMO.- El adjudicatario habrá de elaborar un Plan de Seguridad y Salud en el trabajo, en aplicación del Estudio de Seguridad y Salud contenido en el Proyecto de obras. Dicho Plan deberá ser presentado al

osasun-arloko koordinatzaileari aurkeztu beharko zaio, horrek txostena egin dezan.

Coordinador en materia de Seguridad y Salud para que éste emita el correspondiente informe.

Obretako segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 9. artikuluan ezarrita dauden eginkizunak bete behar ditu segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaileak.

El Coordinador en materia de Seguridad y Salud deberá desarrollar las funciones contenidas en el artículo 9 del Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, que establece las Disposiciones mínimas de Seguridad y Salud en las obras.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (SPKLTBE), azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuta.

II. Administrazio Publikoen Kontratuen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak ezarritakoaren aurka egiten ez duten alderdietan.

III.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako testu bategina eta hari lotuta aplikatu behar diren gainerako legeak.

IV.- Udaleko Gobernu Batzarrari dagokio proposatzen den adjudikazioa egitea, kontratazio-espediente honetan kontratazio-organo eskuduna baita.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

II.- Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001 (RGCAP), de 12 de octubre y Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, en lo que no se oponga al TRLCSP.

III.- Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril y demás legislación conexa que resulte de aplicación.

IV.- Corresponde a la Junta de Gobierno Local la adjudicación que se propone por ser el órgano de contratación competente en el presente el expediente de contratación.

ERABAKI-PROPOSAMENA

LEHENENGOA: PUNTA BEGOÑAKO HEGOALDEKO GALERIAKO SARBIDEKO OBRA egitea "CONSTRUCCIONES ARTELU Y HARGIN de P.L., S.A.L" enpresari (IFK: A-48777130) adjudikatuko zaio (zenbatekoa: 105.568,03 €, gehi % 21eko

PROPUESTA DE ACUERDO

PRIMERO: Adjudicar a la empresa "CONSTRUCCIONES ARTELU Y HARGIN de P.L., S.A.L¨con C.I.F.: A-48777130, la ejecución de la OBRA DE ACCESO A LA GALERÍA SUR DE PUNTA BEGOÑA, por importe de 105.568, 03€ euros, más 22.169,29€

BEZari dagozkion 22.169,29 €). Horrenbestez, adjudikazioaren zenbatekoa 127.737,32 € izango da guztira, eta gastua udal aurrekontuaren kontura egotziko da.
Obrak egikaritzeko epea 4 (LAU) hilabetekoa da, zuinketa egiaztatzeko akta sinatzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori amaitu ostean kontratistaren atzerapentzat joko da, eta ez da beharrezkoa izango administrazioak aldez aurretik hori betetzeko agintzea.

euros correspondientes al I.V.A. de 21%, lo cuál hace un importe total de adjudicación de 127.737,32€, imputándose el gasto a cargo del Presupuesto Municipal.
El plazo de ejecución de las obras será de 4 (CUATRO) meses, a contar desde la suscripción del Acta de Comprobación del Replanteo. El contratista se entenderá incurso en mora por el transcurso del plazo citado, no siendo necesaria intimación previa por parte de la Administración.

BIGARRENA: Obraren egikaritze fasean RCS ARQUITECTURA Y PREVENCION S.L.P. enpresa izendatzea Segurtasun eta Osasuneko koordinatzaile, hain zuzen ere, Itxaso Rodríguez izango da koordinatzailea (ordezkoa: Ainhoa Gordon Fernández). Eraikuntza obretarako gutxieneko segurtasun eta osasun baldintzak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/97 Errege Dekretuaren 9. artikuluan adierazten diren eginkizunak bete beharko ditu koordinatzaileak.

SEGUNDO: Nombrar Coodinador en materia de Seguridad y Salud durante la fase de ejecución de la obra, a la empresa "RCS ARQUITECTURA Y PREVENCION, S.L.P." en la persona de Itxaso Rodríguez (suplente: Ainhoa Gordon Fernández), con el mandato de cumplir con las funciones contenidas en el artículo 9 del R.D. 1627/97, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y salud en obras de construcción.

HIRUGARRENA: Adjudikaziodunak laneko segurtasun- eta osasun-plana egin behar du, obra-proiektuari erantsi zaion segurtasun eta osasunari buruzko azterlana aplikatuz. Plan hori segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaileari aurkeztu beharko zaio, horrek plana onesteko txostena eman dezan.

TERCERO: El adjudicatario está obligado a elaborar un Plan de Seguridad y Salud en el trabajo, en aplicación del Estudio de Seguridad y Salud contenido en el Proyecto de obras. Dicho Plan deberá ser presentado al Coordinador en materia de Seguridad y Salud para que éste emita el correspondiente informe de aprobación de dicho plan.

LAUGARRENA: Adjudikazioduna, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 156. artikuluan adierazitakoaren arabera, Foru kaleko 8. zenbakian dauden Kontratazio Zerbitzuaren bulegoetan azaldu beharko da, kontratua administrazio-dokumentu batean

CUARTO: El adjudicatario, de conformidad con lo indicado en el artículo 156 del TRLCSP, deberá comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, para formalizar el contrato en documento administrativo, en el plazo máximo de quince días hábiles

formalizatzeko, hamabost egun balioduneko epean gehienez ere, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Modu egokian emango zaio izapide horren berri.

siguientes a aquél en que reciba la notificación de la presente resolución, para lo cual será debidamente avisado.

**310.- GETXOKO UDALAREN ETA ERAKUNDE AUTONOMOEN ORDENAGAILUAK ERRENTAMENDU-MODALITATEAN BERRITZEKO KONTRATUA ADJUDIKATZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistema eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki proposamen hau onestea erabaki zen:

EGITATEZKO AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzarrak 2017-03-14an hartutako 107. erabakiaren bidez, GETXOKO UDALAREN ETA UDALAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ORDENAGAILUAK ERRENTAMENDU-MODALITATEAN BERRITZEKO, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ, arauzko izapideak hastea baimendu zen. Egiten den kontratuak baldintza teknikoen pleguaren 2. klausulan zehaztutako betebehar guztiak egin behar izango ditu. Pleguak kontratu-izaera izango du. Kontratuaren gehienezko aurrekontua 976.881,85 euro izango da, BEZaren % 21 barne, kontratuak irauten duen lau urteetarako, eta kopuru hori lizitatzaileek bere eskaintza ekonomikoetan hobetu ahal izango dute, errentan emango diren ekipamenduen aleko prezioen bidez.

**310.- ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO PARA RENOVACIÓN, EN MODALIDAD DE ARRENDAMIENTO, DEL PARQUE DE ORDENADORES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Por acuerdo nº 107 adoptado por Junta de Gobierno Local celebrada en fecha 14/03/2017, se autorizó el inicio de la tramitación reglamentaria para la celebración, mediante el PROCEDIMIENTO ABIERTO, de la RENOVACIÓN, EN MODALIDAD DE ARRENDAMIENTO, DEL PARQUE DE ORDENADORES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS. El contrato que se realice tendrá por objeto todas las labores descritas en la cláusula 2 del Pliego de Condiciones Técnicas que tendrá carácter contractual. El presupuesto máximo del contrato será de 976.881,85 euros, 21% de I.V.A. incluido, para los cuatro años de contrato, cantidad que podrá ser mejorada por los licitadores en sus ofertas económicas mediante los precios unitarios de los equipos a arrendar.

Kontratuak LAU URTEKO balioa izango du ekipoen harrera-akta sinatzen denetik zenbatzen hasita, adostutako entregatze-planaren arabera.

Kontratuaren balioa 807.340,37 euro da, gutxi gorabehera.

BIGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarraren 2017-03-28ko 124. Erabakiaren bidez, erabaki zen 107. erabakian onetsitako plegu eta eranskinetan dauden akatsak zuzentzea.

HIRUGARRENA.- 2017-04-10ean lizitazioaren iragarkia EBAOn argitaratu zen eta 2017-05-05ean, 107. EAOn.

LAUGARRENA.- Getxoko Udaleko Kontratazio Zerbitzuko bulegoetan, jendaurrean ireki zen, 2017-05-18an, aurkeztutako bi proposamenen dokumentazio orokorra biltzen zuen gutun-azala; kontratazio publikoaren arloan indarrean dagoen araudia, aplikatu beharreko udal-xedapenak eta aipatutako kontratua adjudikatzeko espedienteko Administrazio Klausula Berezien Pleguetan jasotakoa betez. Hain zuzen, hauek dira aurkeztutako bost proposamenak:
1.- K35 IT MANAGERS GROUP, S.L.
2.- LANKIDEGO LANTALDE, S.L. (Grupo SOLITIUM).
3.- S.S. HARD, S.L.
4.- EL CORTE INGLÉS, S.A.
5.- RICOH ESPAÑA, S.L.U.

Ez zuen adostasunik eman "RICOH ESPAÑA, S.L.U."ren eskaintza jakinarazteko bitarteko elektronikoak

El contrato tendrá un periodo de validez de 4 AÑOS a contar desde la fecha en que se firme el acta de recepción de los equipos, de conformidad con el Plan de Entrega acordado.
El valor estimado del contrato asciende a 807.340,37 euros.

SEGUNDO.- Por acuerdo nº 124 adoptado por la Junta de Gobierno Local celebrada en fecha 28/03/2017 se acordó la rectificación de los errores existentes en los Pliegos y Anexos aprobados por acuerdo nº 107.

TERCERO.- Con fecha 10/04/2017 se publica el anuncio de licitación en el DOUE y con fecha 05/05/2017 se publica en el BOE número 107.

CUARTO.- Con fecha 18/05/2017, en cumplimiento de la normativa vigente en materia de contratación pública, así como de las disposiciones municipales que resultan de aplicación y según lo contemplado en los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares del expediente para la adjudicación del contrato de referencia, se procede, en las Dependencias del Servicio de Contratación del Ayuntamiento de Getxo, a la Apertura, en acto público, del sobre que contenía la Documentación General de la cinco proposiciones presentadas:
1.- K35 IT MANAGERS GROUP, S.L.
2.- LANKIDEGO LANTALDE, S.L. (Grupo SOLITIUM).
3.- S.S. HARD, S.L.
4.- EL CORTE INGLÉS, S.A.
5.- RICOH ESPAÑA, S.L.U.

A la vista de la falta del consentimiento para la utilización de medios electrónicos para la notificación de la

erabiltzeko. Horregatik, 3 eguneko epea eman zitzaion akats hori ongitzeko. Hala egin zuen horretarako emandako epean.

BOSGARRENA.- 2017-05-19an, "RICOH ESPAÑA S.L.U." enpresak dokumentazio falta ongituta, Getxoko Udaleko Kontratazio Zerbitzuaren bulegoetan, jendaurrean ireki ziren aurkeztutako proposamenen AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK dauzkaten gutun-azalak, emaitza honekin:

oferta de "RICOH ESPAÑA, S.L.U." se le dio un plazo de 3 días para que lo subsanaran, cosa que así hizo dentro del plazo conferido al efecto.

QUINTO.- Con fecha 19/05/2017 y una vez subsanada la ausencia de documentación por la empresa "RICOH ESPAÑA S.L.U.", se procedió, en las Dependencias del Servicio de Contratación del Ayuntamiento de Getxo, a la Apertura, en acto público, de los sobres que contenían los "CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA NO AUTOMÁTICA" de las proposiciones presentadas con el siguiente resultado:

| **ENPRESA**<br>**EMPRESA** | **AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA**<br><br>**DOCUMENTACION PRESENTADA** |
|---|---|
| **1.- K35 IT MANAGERS GROUP S.L.** | **- MEMORIA TEKNIKOA**<br>**- EZAUGARRI ETA ZEHAZTASUN TEKNIKOAK**<br><br>**- MEMORIA TÉCNICA**<br>**- CARACTERÍSTICAS Y ESPECIFICACIONES TÉCNICAS** |
| **2.- LANKIDEGO LANTALDE S.L.** | **- MEMORIA TEKNIKOA**<br>**- EZAUGARRI ETA ZEHAZTASUN TEKNIKOAK**<br><br>**- MEMORIA TÉCNICA**<br>**- CARACTERÍSTICAS Y ESPECIFICACIONES TÉCNICAS** |
| **3.- S.S. HARD** | **- MEMORIA TEKNIKOA**<br>**- EZAUGARRI ETA ZEHAZTASUN TEKNIKOAK**<br>**Proposamen teknikoa + 5 eranskin**<br><br>**- MEMORIA TÉCNICA**<br>**- CARACTERÍSTICAS Y ESPECIFICACIONES TÉCNICAS**<br>**Propuesta Técnica + 5 Anexos** |

| | |
|---|---|
| **4.- EL CORTE INGLES S.A.** | **- MEMORIA TEKNIKOA<br>- EZAUGARRI ETA ZEHAZTASUN TEKNIKOAK<br>Proposamen teknikoa + eranskin 1<br><br>- MEMORIA TÉCNICA<br>- CARACTERÍSTICAS Y ESPECIFICACIONES TÉCNICAS<br>Memoria + 1 Anexo** |
| **5.- RICOH ESPAÑA S.L.U.** | **- MEMORIA TEKNIKOA<br>- EZAUGARRI ETA ZEHAZTASUN TEKNIKOAK<br>Proposamen teknikoa + eranskin 1<br><br>- MEMORIA TÉCNICA<br>- CARACTERÍSTICAS Y ESPECIFICACIONES TÉCNICAS<br>Memoria + 1 Anexo** |

Gero, lizitazioa eraentzen duten pleguekin bat etorriz, aurkeztutako dokumentazioa foliotan banatu eta zenbakitu zen, eta aurkeztutako eskaintzak Informatika Sailera bidali ziren balorazio egokia egite aldera.

Seguidamente, y de conformidad con los pliegos que rigen la licitación, se procedió a foliar y numerar la documentación presentada y se remitieron las ofertas presentadas al Departamento de Informática, a fin de que realizase la valoración pertinente.

SEIGARRENA.- Informatika Saileko teknikariak balorazio txosten bat egin zuen, 2017-05-24koa, AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKOA.

SEXTO.- Por Técnico del Departamento de Informática se emite informe de valoración, de fecha 24/05/2017, sobre los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA NO AUTOMÁTICA.

ZAZPIGARRENA.- Kontratazio Mahaiak, 2017-05-30ean, Getxoko Udaleko Informatika Sailak prozedura horretan modu ez automatikoan ebaluatu beharreko irizpideei buruz 2017-05-24an egin zuen txostena aztertu eta onartu zen. Hau da:

SÉPTIMO.- Por la Mesa de Contratación de fecha 30/05/2017 fue analizado y asumido el informe emitido por el Departamento de Informática del Ayuntamiento de Getxo con fecha 24/05/2017 sobre los criterios evaluables de forma no automática en el procedimiento de referencia y que a continuación se recoge:

"(...) Jasotako eskaintza guztiek betetzen dituzte pleguko baldintza teknikoak; haietako bik, ordea, bigarren gutun-azalean sartu dute (balorazio ez-automatikoa) hirugarrenean sartu

"(…) Todas las ofertas recibidas cumplen con los requisitos técnicos del pliego sin embargo dos de las ofertas han incluido información en el sobre segundo (valoración no automática)

behar zen informazioa (balorazio automatikoa). Hain zuzen:

que debería ir en el sobre tercero (valoración automática) tal y como se muestra a continuación:

o K35: Eskaintzan aurkeztutako ordenagailu guztien kontsumoari eta zarata-mailari buruzko datuak sartu ditu aurkeztu dituen zehaztapen teknikoen orrietan. Adibide gisa, lan-estazioren The Eco Declaration txostenaren 4. orrialdea jaso da.

o K35: Incluye datos de consumo y nivel de ruido de todos los ordenadores ofertados en las hojas de especificaciones técnicas presentadas, como ejemplo se muestra la página 4 del informe de "The Eco Declaration" de la estación de trabajo.

o Ricoh: Ordenagailu guztien kontsumoari eta zarata-mailari buruzko datuak sartu ditu The Eco Declaration txostenetan. Adibide gisa, ordenagailu eramangarriari buruzko txostenaren 4. orrialdea jaso da.

o Ricoh: Incluye datos de consumo y nivel de ruido de todos los ordenadores ofertados en los informes "The Eco Declaration", como ejemplo se muestra en la página 4 del informe del ordenador portátil.

Ondorioz, eta administrazio-pleguko 16. orrialdeko hirugarren paragrafoa betez, "hirugarren gutun-azalean sartu beharreko datuak bigarren gutun-azalean sartuz gero, eskaintza baztertuko da", ez dira baloratu K35 eta Ricoh enpresen eskaintzak.

En consecuencia y cumpliendo el párrafo tercero de la página 16 del pliego administrativo "La inclusión en el sobre segundo de datos que hayan de formar parte del sobre tercero, dará lugar a la exclusión de la oferta" no se han valorado las ofertas de K35 y Ricoh.

(...) Kontuan izanik baloratu beharreko irizpideak eta aurkeztutako eskaintzak, erantsi da aztertu diren 3 eskaintzen balorazioa, balorazioa arrazoitzen duen azalpenarekin batera.

(…) Teniendo en cuenta los criterios a valorar y las ofertas presentadas se adjunta la valoración de las 3 ofertas analizadas y una explicación que justifica dicha valoración.

| ENPRESA<br>EMPRESA | PUNTUAK<br>PUNTOS |
|---|---|
| EL CORTE INGLÉS, S.A. (IECISA) | 19 |
| LANKIDEGO LANTALDE, S.L. | 10 |
| SS HARD, S.L. | 23 |

Kontratazio Mahaiak, adierazitako txostena ikusirik, lehenik erabaki zuen prozedura honetatik kanpo uztea K35 IT MANAGERS GROUP SL eta RICOH ESPAÑA SLU enpresak, prozedura hau arautu duen administrazio-baldintzei buruzko pleguaren 19. klausulan – "Proposamenak, aurkeztea", "BIGARREN GUTUN-AZALA" idatz-zatiko azken paragrafoan ezarritakoa betez: "(...) hirugarren gutun-azalean sartu beharreko datuak bigarren gutun-azalean sartuz gero, eskaintza baztertuko da. (…)"

La Mesa de Contratación, visto el citado informe en primer lugar acuerdó excluir de este procedimiento a la razón social "K35 IT MANAGERS GROUP, S.L." y a "RICOH ESPAÑA S.L.U." de acuerdo con lo establecido en la cláusula 19.- Presentación de proposiciones, apartado SOBRE SEGUNDO último párrafo del pliego de condiciones administrativas que rige este procedimiento, donde se recoge expresamente que " (…) La inclusión en el sobre segundo de datos que hayan de formar parte del sobre tercero, dará lugar a la exclusión de la oferta. (…)"

Hori egin ondoren, AUTOMATIKOKI EBALUATU AHAL DIREN IRIZPIDEEI dagokien gutun-azala ireki zen, emaitza honekin:

Seguidamente se procedió a la apertura del sobre correspondiente a los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA, con el siguiente resultado:

**INFORMATICA EL CORTE INGLES, S.A.**

1) **EKIPOEN HILEKO KUOTA / CUOTA MENSUAL DE LOS EQUIPOS:**

| Ekipo mota<br><br>Tipo de equipo | Hileko errentamenduko gehieneko aleko prezioak, BEZik GABE<br><br>Precios unitarios máximos de arrendamiento mensual SIN I.V.A. | ESKAINITAKO PREZIOA<br><br>PRECIO OFERTADO | BEZ (% ...)<br><br>I.V.A. (...%) | PREZIO OSOA BEZarekin<br><br>PRECIO TOTAL CON I.V.A. |
|---|---|---|---|---|
| MONITORE ESTANDARRA<br>MONITOR ESTANDAR | **2,90 €** | 2,90 | 0,61 | 3,51 |
| MAHAI GAINEKO ORDENAGAILUA<br>ORDENADOR DE SOBREMESA | **16,50 €** | 16,36 | 3,44 | 19,80 |
| ORDENAGAILUA ERAMANGARRIA<br>PORTÁTIL | **24,50 €** | 23,69 | 4,97 | 28,66 |
| DOCKING<br>DOCKING | **2,60 €** | 2,60 | 0,55 | 3,15 |
| ALL IN ONE<br>ALL IN ONE | **20 €** | 20,00 | 4,20 | 24,20 |
| UKIMENEKO ALL IN ONE | **24 €** | 24,00 | 5,04 | 29,04 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ALL IN ONE TÁCTIL | | | | |
| LAN-ESTAZIOKO MONITOREA<br>MONITOR DE ESTACIÓN DE TRABAJO | **3,70 €** | 3,70 | 0,78 | 4,48 |
| LAN-ESTAZIOA<br>ESTACIÓN DE TRABAJO | **39 €** | 38,95 | 8,18 | 47,13 |
| PANTAILA ANITZEKO POSTUA (BIKOA)<br>PUESTO MULTIPANTALLA DOBLE | **6,25 €** | 5,22 | 1,10 | 6,32 |
| PANTAILA ANITZEKO POSTUA (HIRUKOA)<br>PUESTO MULTIPANTALLA TRIPLE | **7,30 €** | 7,00 | 1,47 | 8,47 |

1) HITZEMAN DU prestazioa gauzatu bitartean ORDENAGAILUEN KUDEAKETA-SOFTWARE bat emango duela. Kudeaketarako software bat, hain zuzen:

- ONARTZEN DU bio, firmware eta kontrolagailuen eguneraketen automatizazioa.
- BIDE EMATEN DU serie-zenbakia eta modeloa identifikatzeko eta bermearen egoera egiaztatzeko.
- Software BAKARRA DA ordenagailu guztietarako.

(Aplikazioaren izena eta dokumentazioa erantsi dira, non eskatutako betekizunak ageri diren −hala nola aplikazioan gehitu diren funtzionaltasunak−, berau baloratzeko asmoz).

2) Konpromisoa hartu du prestazioan ERANTZUN-DENBORA 420 MINUTUAN MURRIZTEKO.

3) Konpromisoa hartu du prestazioan KONPONBIDEAREN DENBORA 300 MINUTUAN MURRIZTEKO.

4) Hornituko dituzten

1) SI se compromete a aportar durante la prestación un SOFTWARE DE GESTIÓN DE LOS ORDENADORES. Dicho software de gestión:

- SI permite la automatización de las actualizaciones de controladores, bios y firmware.
- SI permite la identificación del número de serie, modelo y comprobación del estado de la garantía.
- SI es único para todos los ordenadores.

(Se adjunta el nombre y documentación de la aplicación donde aparezcan los requisitos exigidos como funcionalidades incluidas en la aplicación con el objeto de ser valorada).

2) Que se compromete a llevar a cabo la prestación con una REDUCCIÓN DEL TIEMPO DE RESPUESTA DE 420 MINUTOS.

3) Que se compromete a llevar a cabo la prestación con una REDUCCIÓN DEL TIEMPO DE RESOLUCIÓN DE 300 MINUTOS.

4) Que los CONSUMOS EN

ekipamenduek honako WATT KONTSUMO hauek edukiko dituzte:

- Egonaldian edo idle moduan
1. Oinarrizko PUZ: 18,7 watt.
2. Lan-estazioko PUZ: 32,8 watt.
3. Eramangarriak: 5,4 watt.
4. All In One: 17,92 watt.

- Itzalita edo stand by-n

1. Oinarrizko PUZ: 0,9 watt.
2. Lan-estazioko PUZ: 1,1 watt.
3. Eramangarriak: 0,25 watt.
4. All In One: 0,34 watt.

5) Hornituko dituzten ekipamenduek ZARATA-MAILA (dBA) hauek sortuko dituzte: (kontsumoaren, zarata-egitearen eta materialen ziurtagiriak erantsi dira):

- Egonaldian edo idle moduan

1. Oinarrizko PUZ: 21 dBA.
2. Lan-estazioko PUZ: 17,2 dBA.
3. Eramangarriak: 20 dBA.
4. All In One: 26 dBA.

- Itzalita edo stand by-n

1. Oinarrizko PUZ: 0 dBA.
2. Lan-estazioko PUZ: 0 dBA.
3. Eramangarriak: 0 dBA.
4. All In One: 0 dBA.

- Diskora sartzean

1. Oinarrizko PUZ: 22 dBA.
2. Lan-estazioko PUZ: 17,5 dBA.
3. Eramangarriak: 27 dBA.
4. All In One: 29 dBA.

6) Hornituko dituzten

WATIOS de los equipos a suministrar son los siguientes:

- En modo reposo o idle
1. CPU Básica: 18,7 watios.
2. CPU Estación de trabajo: 32,8 watios.
3. Portátiles: 5,4 watios.
4. All in one: 17,92 watios.

- Apagado o standby

1. CPU Básica: 0,9 watios.
2. CPU Estación de trabajo: 1,1 watios.
3. Portátiles: 0,25 watios.
4. All in one: 0,34 watios.

5) Que los NIVELES DE RUIDO EN dBA de los equipos a suministrar son los siguientes: (se adjuntan certificados de consumo, emisión de ruido y materiales)

- En modo reposo o idle

1. CPU Básica: 21 dBA.
2. CPU Estación de trabajo: 17,2 dBA.
3. Portátiles: 20 dBA.
4. All in one: 26 dBA.

- Apagado o standby

1. CPU Básica: 0 dBA.
2. CPU Estación de trabajo: 0 dBA.
3. Portátiles: 0 dBA.
4. All in one: 0 dBA.

- Accediendo a disco

1. CPU Básica: 22 dBA.
2. CPU Estación de trabajo: 17,5 dBA.
3. Portátiles: 27 dBA.
4. All in one: 29 dBA.

ekipamenduek BADUTE FABRIKATZAILEEN LAGUNTZARAKO WEBGUNEETAN EKIPAMENDUEN MODELO GUZTIAK AUTOIDENTIFIKATZEKO AUKERA.

(Sartzeko URL helbidea erantsi da eskainitako ekipo bakoitzean).

http://pcsupport.lenovo.com/es/es/

Ekipamendu guztiek daukate URL bera; horrek Lenovo Bridge zerbitzua dauka eta automatikoki detektatzen du serie-zenbakia.

6) Que SI los equipos a suministrar cuentan con AUTOIDENTIFICADO DE TODOS LOS MODELOS DE EQUIPOS EN LAS WEB DE SOPORTE DE LOS FABRICANTES.

(Se adjunta la url de acceso para cada equipo ofertado).

http://pcsupport.lenovo.com/es/es/

Para todos los equipos es la misma URL, con el servicio Lenovo Bridge para detectar automáticamente el número de serie.

**LANKIDEGO LANTALDE**

**1) EKIPOEN URTEKO KUOTA / CUOTA MENSUAL DE LOS EQUIPOS:**

| Ekipo mota<br><br>Tipo de equipo | Hileko errentamenduko gehieneko aleko prezioak, BEZik GABE<br><br>Precios unitarios máximos de arrendamiento mensual SIN I.V.A. | ESKAINITAKO PREZIOA<br><br>PRECIO OFERTADO | BEZ (% ...)<br><br>I.V.A. (...%) | PREZIO OSOA BEZarekin<br><br>PRECIO TOTAL CON I.V.A. |
